

IRAGARKIA

26. ALDIZKARIA - 2026ko otsailaren 5a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK ANTSOAIN

Aldaketa, 19. ordenantzan, zeinak prezio publikoak arautzen baititu musika eskolako ikastaroetan izena emateko eta parte hartzeko. Berriz ere jendaurrean jartzea

2025eko azaroaren 24ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, argitaratu zen 19. ordenantzaren aldaketa. Ordenantza fiskal horrek prezio publikoak arautzen ditu musika eskolako ikastaroetan izena emateko eta parte hartzeko. Baina, akats baten ondorioz, iragarki horretan beste ordenantza bat aipatu zen (horrek prezio publikoak arautzen ditu hezkuntza, kultura, kirol edo gizarte arloetan Udalak eta udal zerbitzuek antolatzen dituzten ikastaro eta jardueretarako sarrera, izen emate edo matrikuletarako), eta ez benetan aldatzen zen aipatu ordenantza, hau da, prezio publikoak arautzen dituen musika eskolako ikastaroetan izena emateko eta parte hartzeko. Hori dela eta, berriz ere iragartzen da 19. ordenantza fiskalaren aldaketa, zeinak prezio publikoak arautzen baititu musika eskolako ikastaroetan izena emateko eta parte hartzeko. Iragarkiaren edukia zuzena zen, materialki musika eskolako ikastaroen tarifak aldatzen zirelako, baina, nahasmena eragiten zuen, iragarkiaren izenburuaren arabera ondorioztatzen baitzen Udalak antolatzen dituen ikastaro eta jardueri buruzko ordenantza aldatzen zela (14. ordenantza).

Antsoaingo Udalak, 2025eko urriaren 29an egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen musika eskolako ikastaroen tarifen aldaketa.

Horiek horrela, eta bat etorritik martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 12., 13. eta 35. artikuluekin (Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea), eta uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluekin (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea),

ERABAKITZEN DA:

1. Hasiera batez onestea 19. ordenantzaren aldaketa. Ordenantza horrek prezio publikoak arautzen ditu musika eskolako ikastaroetan izena emateko eta parte hartzeko.

2. Espedientea jendaurrean jartzea hogeita hamar egunean, iragarkia argitaratuta Udalaren ediktuen taulan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

3. Jendaurrean egoteko epea iragaten bada inork erreklamaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu gabe, ulertuko da ordenantzaren aldaketa behin betikoa dela, bat etorriz uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1.c) artikuluaarekin (Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea). Orduan, ordenantza aldatuaren testu osoa argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Antsoainen, 2026ko urtarrilaren 14an.–Kontu-hartzailea, José María Gainza Ordoqui.

PLANTEATUTAKO ALDAKETA

Musika eskolako prezio publikoak eguneratzea, Nafarroako 2025eko iraileko KPlaren urteko aldakuntzaren arabera (hau da, %2,8).

Ikus taula osoa

2026/2027 IKASTURTETIK AURRERA APLIKATUKO DIREN TARIFEN TAULA		
I. MAILA	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Musika Hastapenak (Musika eta Mugimendua)	118,93 euro/ordainketa	197,99 euro/ordainketa
II. MAILA	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Musika Eskola	239,83 euro/ordainketa	383,16 euro/ordainketa
Kontserbatoriorako Prestakuntza	265,09 euro/ordainketa	423,52 euro/ordainketa
Bigarren Instrumentua	127,92 euro/ordainketa	204,33 euro/ordainketa
III. MAILA	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
1. aukera		
Instrumentua + Konboa + Instrumentu-taldea	239,83 euro/ordainketa	383,16 euro/ordainketa
2. aukera		

Instrumentua + Konboa	213,21 euro/ordainketa	316,67 euro/ordainketa
3. aukera		
Instrumentua + Instrumentu-taldea	195,44 euro/ordainketa	289,96 euro/ordainketa
Bigarren Instrumentua	127,92 euro/ordainketa	204,33 euro/ordainketa
HELDUAK	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Gitarra-taldea (a)	91,70 euro/ordainketa	136,94 euro/ordainketa
Instrumentua (b1)	170,57 euro/ordainketa	253,36 euro/ordainketa
Instrumentu-taldea (b2)	48,38 euro/ordainketa	71,85 euro/ordainketa
Konboa (b3)	90,62 euro/ordainketa	134,58 euro/ordainketa
Instrumentua + Instrumentu-taldea (b4)	195,44 euro/ordainketa	289,96 euro/ordainketa
Instrumentua + Konboa (b5)	213,21 euro/ordainketa	316,67 euro/ordainketa
Instrumentua + Instrumentu-taldea + Konboa (b6)	239,83 euro/ordainketa	383,16 euro/ordainketa
Bigarren Instrumentua	127,92 euro/ordainketa	204,33 euro/ordainketa
TALDEAK BAKARRIK	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Abesbatza/Eskolania	48,38 euro/ordainketa	71,85 euro/ordainketa
Banda / Big Banda	48,38 euro/ordainketa	71,85 euro/ordainketa

Iragarkiaren kodea: L2600518